

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Foru Gobernuak eta Nafarroako 10 enpresek Indiako aerosorgailu-fabrikatzaile nagusiekin akordioak bilatuko dituzte

Osagai eta zerbitzuen enpresek beraien negozioa zabaldu nahi dute energia eolikoan dagoeneko mundu-mailan laugarren postuan dagoen herrialde batean

Astelehena, 2016.eko azaroak 14

Nafarroako Gobernua, Manu Ayerdi lehendakariordearen bitartez, Indian izango da aste honetan osagai eta zerbitzuetako hamar enpresa nafarrek izango dituzten bilera tekniko-komertzialetan; Asiako herrialde horretako aerosorgailu-fabrikatzaile nagusiekin elkartuko dira, beste eragile batzuen artean.



Duela bi hilabete, Indiako fabrikatzaile nagusiek Foru Komunitatea bisitatu zuten.

Bidaia Wind Supply talde nafarrak prestatu du, Garapen Ekonomikorako Departamentuak diruz lagundutako nazioartekotze-planaren barnean. Talde hori dagoeneko Indian dauden enpresek osatzen dute, Gamesarako bereziki hornidura-lanetan dabilzanak, Indiako aerosorgailu-fabrikatzaile handiena dena.

Zehazki, ordezkaritza honako hauek osatzen dute: IED Greenpower, Frenos Iruña, Fluitecnik, Industrias Barga, Ingeteam eta Tetrace-k, bai eta zonaldean interesak dituzten beste sozietate batzuek ere, Industrias Laneko eta Jatorma enpresek, esaterako; haiei beste batzuk gehitu zaizkie: Industrial Barranquesa, Energia Berriztagarrien Zentro Nazionala (CENER) eta Vicinay euskal enpresa.

Bidaiaren helburua enpresa nafarren eskaintza tekniko eta produktu nahiz zerbitzuak Indiako energia-enpresetako arlo teknikoko erabakitzaile nagusiei aurkeztea da, beraien negozio-saila zabaltzeko asmoz.

Bidaia honek garrantzi handia du Indiako energia eolikoaren merkatua asko ari baita hazten. Mundu-mailako laugarren ekoizlea da, Espainiaren aurretik, hain juxtu. 28 Gw-ko ahalmen eolika du eta 2022an 60 Gw-ra heltzea espero du, estatuko plan baten barnean; haren arabera, energia-ekoizpenaren % 15 iturri berriztagarrietatik lortu nahi du 2020an. Nafarroan, energiaren kontsumoaren % 24,25 berriztagarriekin betetzen da, eta ehuneko hori % 83,7ra igotzen da hornidura elektrikoaren kasuan.

Merkataritza-plana

Bidaia Nafarroako Gobernuak, instituzionalki eta laguntza publikoekin babesten duen merkataritza-ibilbide baten barnean dago. Lehenengo merkataritza-jarduera duela bi hilabete egin zen: [energia eolikoko Indiako fabrikatzaile nagusiek Nafarroa bisitatu](#) zuten merkataritza eta teknologiako trukeak arakatzeko. Zehazki, Nafarroako ahal eolikoaz interesatu ziren (fabrikatzaileak, teknologia-zentroak, ibilbidea...) [Suzlon Group](#), [Regen PowerTech](#) eta [InoxWind](#) konpainietako ordezkariak, Gamesarekin batera, Indiako turbina-salmenten % 90 dutenak.

Aste honetan Indiako hego-ekialdean egingo diren bilera tekniko-komertzialen ondoren, apirilean produktu eta zerbitzuen eskaintzaren taldekako aurkezpena egingo da Windergy-ko azokan (New Delhi). Nafarroako Gobernuak taldekako nazioartekotze-proiektu hau 60.000 euroekin [babestu](#) du.

Kontzentrazio handiagoa

Zehazki, Nafarroako ordezkariak Tamil Nadu eta Andhra Pradesh-ko estatuak bisitatuko ditu, herrialdearen hego-ekialdean; Indiako industria eolikoaren % 50 inguru han dago. India 2015ean inbertsio nafar gehien jaso zuen herrialdea da (13 enpresa, 8 sektore eolikokoak). Nafarroako enpresa-kontzentrazio handieneko atzerriko herrialdea da ere. Navarra Wind Supply 2016an sortu zen merkataritza-sinergiak errazteko eta industria hornitzaileen artean esperientziak eta gastuak partekatzeko.

Ayerdi lehendakariordeak asteartean bilera batean parte hartuko du, eta bertan, energia eolikoko Indiako eta Nafarroako merkaturen politikak, legeria eta egoeraren azterketa trukatu dira.

Indiako Energia Berriztagarrien ministerioko ordezkariak izango da eta New Delhiko Espainiako enbaxadako ordezkari gorenak, Carlos Jimenez arduradun ekonomiko eta komertziala (enbaxadorerik ez da izendatu oraindik). Hotelean bertan, enpresa nafarrek laneko talde-bilerak egingo dituzte eta banakako merkataritza-bilerak enpresa indiarrekin. Asteazken eta ostegunetan, Ayerdi lehendakariordeak Indian dauden enpresa nafarren fabrikak bisitatuko ditu.



Nafarroako ordezkariak Tamil Nadu eta Andhra Pradesh-ko estatuak bisitatuko ditu, Indiako industriagune garrantzitsu bat, eta bertan herrialde horretako industria eolikoaren % 50 inguru pilatzen da.